

Herritarren partaidetzari buruzko 2018ko azaroaren 23ko 5/2018 Foru Araua

HIRUGARREN KAPITULUA: HERRITARREN PARTAIDETZARAKO FORU BATZORDEA

40. artikulua. Helburua.

Foru Aldundiaren barnean Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea izango da. Herritarren partaidetzaren arloan Aldundiak zertzen dituen jarduerak koordinatzea izango du xede eta, zehatzago, foru arau honetan arautzen diren partaidetza prozesuak garatzeko jarduerak koordinatzea, arlo honetan foru departamentuek garatzen duten jardueraren koherentzia eta osagarritasuna lortzearekin batera.

41. artikulua. Osaketa

1. Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea osatuko dute herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen departamentuak izendatutako pertsonak, batzordeburu izango baita, eta foru departamentuetako ordezkari banak, betiere emakume eta gizonen arteko ordezkariak orekatua bermatuz.

2. Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordearen saioetan parte hartu ahal izango dute egoki ikusten diren adituek, genero eta berdintasunean adituak barne horri egoki iritziz gero, hain zuzen ere batzordeari aholku emateko funtzioak betetzearren. Horiez gain, ukitutako toki erakundeetako ordezkariak ere parte hartu ahal izango dute.

42. artikulua. Funtzionamendu araubidea

1. Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea gutxienez urtean bi aldiz bilduko da.

2. Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea behar adina aldiz bilduko da batzorde horren esku hartzea behar den bakoitzen partaidetza prozesu bat behar bezala izapidetzeko, modu ohikoan nahiz ezohikoan, luzamendurik gabe.

3. Foru Aldundiaren agintaldia hasirik, Foru Batzordeak, agintaldiko lehen urtean zehar, Partaidetza Programaren aurreproiektua egingo du, foru arau honetako 36. artikuluari jarraikiz.

43. artikulua. Eginkizunak.

Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordearen eginkizunak honakoak dira:

a) Deliberaziozko partaidetza prozesuak egiteko ekimenak onartu edo ezezte, arrazoituta.

b) Deliberaziozko partaidetza prozesuak eragiten dion lurralde eremuari buruz sortutako desadostasunak ebaztea, arrazoituta.

c) Deliberaziozko partaidetza prozesua zein unetan irekitzen den finkatzea.

d) Partaidetza tresna berriak erabiltzea ahalbidetuko duten erregulazioak proposatzea.

e) Foru Aldundiak onartuko duen Partaidetza Programaren proposamena egitea.

f) Ekimenak bultzatzea eta foru departamentuen elkarrekiko jardueren koherentzia, osagarritasuna eta koordinazioa ziurtatzea, foru arau honetan ezarritako ondorioetarako.

g) Herritarren partaidetzaren emaitzak sustatzeko eta horiek zabaltzeko kanpainak bultzatzea, eta partaidetza bidezko esperientzietako eztabaidei eta emaitzei zabalkundea ematea.

h) Toki erakundeekin elkarlanean aritzea partaidetza ekimenak bultzatzeko unean, eta hala egokituz gero elkarrekiko ekimenak abiatzea eta partaidetza esperientziak sustatzera zuzendutako ekimenak bultzatzea.

i) Administrazioaren eta herritarren prestakuntza sustatzea herritarren partaidetzarako esperientzien eta metodoen inguruan, eta hala egokituz gero adituekiko jardunaldi eta eztabaidetarako deialdiak egitea, herritarren partaidetzarako eskubidearen subjektuek prestakuntza hobea izan dezaten.

j) Foru Aldundiak hartu beharreko politika edo erabakien eraginpeko lurralde eremua zehazteko unean Lurralde Historikoan bizi diren pertsonen abiarazitako deliberaziozko partaidetzako prozesuetan sortzen diren desadostasunak ebaztea.

k) Partaidetza prozesuetan genero berdintasunaren eta emakume eta gizonen partaidetza orekatuaren gaia sartzea bermatzea, behar diren neurriak bultzatuz horretarako, eta generoaren eta herritarren partaidetzaren arloan administrazioaren eta herritarren prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatzea.